

PERU ABARKA: FORUA ETA LITERATURA

Eibar, 2002-XI-27

Andres Urrutia

1. *Ius semper loquitur*: zuzenbidea eta literatura

Arratsalde on guztioi!

Peru Abarkaren berrehun urte direla eta, hona hemen, beste behin ere, Eibarko herrian, euskararen akademia, Euskaltzaindia, Juan Antonio Mogelen lana gogorarazteko eta aztertzeko.

Mogelen emaitzak, euskarazkoak nahiz gaztelaniazkoak, anitzetan izan dira goratuak eta ikertuak. Euron artean, zer esanik ez, *Peru Abarka* sonatua. Horri aitortu zaio, Hego Euskal Herrian behinik behin, Mendebaldeko euskal literaturaren aitapontekotza ohorezkoa.

Berrehun urte joanak dira, dagoeneko, hura bururatua izan zenetik. Bi mende horien ondotik, aldiz, ekimen berezia eskatzen dio horrek euskal iker-tzaileari, oraingoei eutsi eta *Peru Abarkaren* baitan ikuspegi osterantzekoak idortzeko.

Horri ekingo diot gaurko honetan. Zuen aurrean bestelako ezaugarriak plazaratzea edo, hala nahi baduzue, zuen aurrean iradokizun batzuk egitea izango da nire zeregina, betidanik gogoko izan ditudan bi arlo bateratuz eta bertaraturaz, alegia, zuzenbidea eta literatura.

Horretarako eman behar ditut, lehendaurrez, xehetasunik premiazkoenak, gero azalduko den metodologiaren argigarri izan dakizkigun horiek.

Azken urteotakoa da, gero eta nabariagoa, zuzenbidea eta literatura es-tekatzten dituen soka luzea. Ingelesez, *law and literature* (FREEMAN eta LEWIS, 1999; ARISTODEMOU, 2000); frantsesez, *droit et littérature* (POSNER, 1996). Bi izeneko horien baitan badira, lehen esan legez, bi arlook batera lan-du nahi dituztenak, bi-biotan zer bait berri edo aberasgarri kausituko dutela-koan.

Ius semper loquitur (CARRANCÁ, 1998: 141-146). Hala dio esatera maiz-tuak. *Legeak beti hitz egin behar* bihurtuko nuke nik hori, zalantzarik gabe,

euskara latinezko esangurari heldu guran. Hitza da zuzenbidea, hitza da literatura. Eta hitzetan dituzte bi-biok abiapuntua eta abiaburua. Hitza interpretatu, hitzaren bidez lege eta agindua aplikatu, hitzetan adierazi gizakume oro inguratzen duena.

Zerk, alabaina, gurutzatzen eta iltzatzen ditu bi eremuok? Bistan da modu askotakoak izan daitezkeela euren arteko harremanak (POSNER, 1996: 7-10). Haste-hastetik bederen, hortxe dira literaturaren lanak, legea eta zuzenbidea batera zein bestera barruan hartzen dituztenak. Denon gogoan dira halakoak. Hasian hasi, bi arloetako testuek eskatzen dituzte, testugintza orori dagokionez, interpretazioa eta exegesia. Hirugarrenez ere, badute zeresanik bi-biok erabiltzen dituzten tankera, erretorika eta abarrekoek. Laugarrenik ere ezin uka, literaturaren ekarriak lotu-loturik daudelako euren jabetza intelektualarekin. Horren hurrengo, justizia-administrazioa, eta horren lanabes agerikoena, prozesua, antzerki-ikuspegi nabaria duena.

Horraino, bost puntuotara, bi arloen arteko nondik norakoak. Hurbilketa-rako puntu direnek, aldiz, ezin ezkuta euren arteko arrotasuna.

Ex facto ius oritur (legea egitatetik sortzen da). Hala esaten zuten jurista klasikoek. Zehatzago legoke, hala ere, *ex fabula ius oritur* (alegiakozkoak sortzen du legea). Izan ere, tenkadura argia da: bateko, literaturari dagokion *oro da egingarri* dugu; besteko, jakina, zuzenbidearen *ez duzu hori egin behar* (ÖST ET ALIA, 2001: 9). Bi horien artean, fiabardura konta ezin ahalekoak.

Zertan du irabazia zuzenbidearenak, literaturarekin jokoan jarritz gero? Azalean, besterik gabe, erudizioa egon daiteke, literaturaren gehigarriak beti apaintzen eta prestatzen baitu zuzenbidearen eremu lehorra. Literaturak, nolana ere, haratago joan nahiko luke, antolamendu zurrun eta hertsiki horren zirikituak bilatu eta zabaltzeko gogoz. Hartara, sorkuntza ere molda dezake literaturak zuzenbidearen esparruan, hizkuntza bera erabiltzen baitu kritikapean jartzeko hainbat erakunde eta eraikin juridiko, gizartearen bat-batekotasunaren izenean.

Gauzak horrela, zuzenbidea eta literatura batera eramate horretan, badira zailtasun eta arazoak (BIET, 2000: 11-12). Lehen-lehena tradizioetik dator. XIX. mendetik hona ezaguna da zuzenbidea gero eta itxiago dabilela bere zereginetan, gai tekniko hutsetan, legelarien jabetzapeko esparru moduan. Bestetik ere, zuzenbidea zabaldu egin da, eta horren ezaguera ia-ia ezinezko bihurtu. Horren aurrean, lerrakera bikoitza da arbuigarria: muzin egitea bezainbeste, xehekerietan ibiltzekoa. Nolanahi ere, zuzenbidea desagertu da azken bi mendeotan idazleen esperientziatik, historian zehar gertatutakoari uko eginez. Izan ere, *Ancient Régime* delakoaren idazleek zuzenbidea zuten, beste jakintzagai askoren barruan, habe sendo eta oinarri tinkoa.

Ukaezina da zuzenbidea eta literatura batera datozela hainbat alorretan, besteak beste, gai berberak –ezkontza, oinordetza, gizartearen barne-loturak

eta hausturak, agintaritza- eta subjektu berberak uztartzen dituztelako. Bide beretik ere, begi-bistakoak dira bion arteko desberdintasunak eta kontrako joerak, literaturak maiz-sarri argitzen digulako zuzenbidearen fikzio-izaera eta, horren ondorioz ere, fikzio hori gainditu beharra, gizartearen osagairik beharrenak aintzat hartuta.

2. *Peru Abarka*: forua jasotzea

Esanak dira, hortaz, abiapuntu nagusiak. Eginak ez, ordea, horien gaurta-hemen jartzea, euskal literaturaren aitzakian luze ibil baitaitezke euskal zuzenbidearen zirkulu zabalean.

Era-erara dator horretarako *Peru Abarka*. Hamaikatxo aldiz entzun izan ditugu liburu horren zantzuak, askoren aho eta mihietan. Literaturazaleak ez ezik, bestelako ikertzaileak ere etorri dira Mogelen plazara, duela berrehun urte hark asmatu zuena argi anitzen kandela ugaripean jartzera.

Argi horiek, esan beharrik ez dago, guztiz desberdinak izan zaizkigu berrehun urteotan. Bada Mogelengan literatura-kutsua edota politika-ukitua, foru-sistemak zirela eta, goraiatu dituena. Etnografia, teknika eta jakineko beste gauza batzuk ere franko aipatu dira haren itzalpean.

Gaurkoa, esan dezadan laburki, orain arte esandakotik dator, hau da, zuzenbidea eta literatura lotzetik. Areago, gaurkoa Peru Abarkaren testua eta ordu hartan Bizkaian indarrean zegoen forua (1526. urteko Foru Berria) haztatzetik dator, bi osagai horiek batera irakurtzeko modukoak baitira. Paralelismo horretan bilatu dut norabidea. Lehendabizikoz, Peru Abarkaren testuan miatuko ditut zuzenbidearen aztarnak. Gerogarrenean, aztarna horiek legearen argitan jarriko ditut, Mogelek horri zor diona azpimarratzeko.

Badakit bestelako ahaleginak ere egin izan direla foruen irakurketa euskal literaturaren baitan gauzatzeko (ZELAIETA, 1978, 1979). MICHELENA zenak (1988:934) gogorarazi zigunez, Mogel dugu lehena, foruaren gainetik hizkuntza ezarri zuena, euskaldunen arteko estekadura sendo eta indartsu gisa. Tesiarena ere gogoratu da *Peru Abarka* zehazteko. Beldur naiz ni ere ez ote naizen jausiko halako tesi-zulo batean, alde zurretik egiazkotzat jotzen dudana frogatu nahian. Horrexegatik nire metodologiak ez du besterik egingo legearen testuak literaturaren orrialdeekin bateratzea baino, batak eta besteak euren artean duten elkar-eragina nabarmentzeko.

Ez naiz alferrik luzatuko bi testuon xehetasunetan. Jakin beza entzuleak 1802. urtean Mogel Markinan zela, *Peru Abarka* amaitu bitartean. Bizkaiko Jaurerrian indarrean zegoen lege-testua bertako forua zen, 1526. urteko Foru Berria. Izenik esan gabe, hura izan zuen Mogelek jo-harria, eta horri dagozkio Peru Abarkaren aipamenak.

Horrela jokatzek, hala eta guztiz ere, zabalegi utziko luke gure egitekoa. Horrexegatik hain zuzen, hiru autu nagusi aipatu eta aztertuko ditut gaurkoan, hirurok esanaren adierazgarri izan daitezkeelakoan, *Peru Abarkaren* eretzean.

Gogoko zaigu Frantziako iraultzaren osteko juristoi zuzenbide publikoa eta pribatua bereiztea. Ez horrenbeste, azpimarra dezadan, 1802. urtekoei. Hala ere, ardatzak eta zimentarriak behar, eta horretarako zerrendatuko dut lehen-dabizi, bizkaitarren idalgia orokorra, zuzenbide publikoari doakiona; horren hurrengo, etxaguntzaren oinordetza, zuzenbide pribatuari egokitzen zaiona; eta, azkeneko, literaturaren barruan autu unibertsala dena, hau da, justizia-administrazioarena.

Hirurotan ditu printzak eta islak Mogelen *Peru Abarkak*.

3. *Ez naz ni Jauna... baña etxagun*

Peru Abarkaren liburua irakurri duen edonork badaki, lehenengo orrialdetik aurrera, bi gizabanakoren arteko autuak direla horko testuen edukiak. *Peru*, baserritar garbia (eta garbizalea) eta *Maisu Juan* (kaletarra eta, estereotipoari kasu eginez, nahasiagoa, euskara eta erlijioari buruzko gorabeheretan).

Elkar ezagutu bezain laster, *Peru Abarkak* sekulako irakatsiak eskaintzen dizkio Maisu Juani:

Ez naz ni Jauna: abarcac oñetan, chapel bat buruban, guerrestuba gorpuztarian; au da nire apaindurija guztija: baña echagun, icen onaren zalia nasan aldeti, ez oi nas sartu ardanteguijetan nora ecian, premiñaz, ta ecin bestez baño, ez jacolaco echagun beguiratu bati ondo eguiten buruba bat eguitia guizon ospetsu, burrucari, ondatzalle, alper, ta baldanacaz. Ez nau orainguiño inoc icusi ardauc igarota, gach eguinda, zabuca oñac locaturic, ez miña motelduta, ez beguijac lausotuta, asco leguez euren osasun, ondasun ta arimen caltian. Bein baño gueijagotan izan nas neure errico Buru, edo Piel, ta darda gañian erabilli daruadaz ardao saltzallac belutu, edo ondo gautu artian dauqueezanian eche barruban nequezaliac, edo ate edeguijaz ardauc salduten badabe debecauta daguan orduban. (P Ab 43-44)

Lehen-leheneko hurbilketatik berehalako ondorioak datoz:

– Peruk uko egiten dio jaun izateari. Perurentzat, argi dago, kanpo eta itxurazko jauntza baino, etxaguntza dela benazko jauntza, eskolak eman dezakeena baino goragokoa.

– Peruk nahiago du, hobesten du jauntza hori: *echagun*, *icen on* horiek ematen dizkiote zin-zinezko izaera eta aldarte. Jasekoa, bere buruaren jabe, kanpolarrosa eta buru-iritzia baino.

– Peruk, bestenez ere, badaki etxaguntza horrek ematen diola egundoko aukera bere herriaren agintaria izateko. Izan ere, halakoa izan da; Mogelen hi-

tzetan esateko, *errico Buru, edo Piel* gertatu da, behin baino gehiagotan, Peru. Ez hiri batena, ezpada elizate batena, forua bizi-bizirik dagoen herri batena.

Bereizketa hau nabari-nabaria da Bizkaiko euskal idazleengan. Makina bat aldiz ekarri dira horren puntura Frai Bartolome de Santa Teresaren idazlanak. Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak ere sarri-sarri dira horren lekuko (ZABALA, 2000, II:18):

Zara Errico fiel, edo Urico Alcate? ¿Celan beguiratu dozu ceure ardurara dagoan Erri edo Uriagatic? ¿Galarazo dozu, deungaro gastadu edo galdu eztaitezan Urico edo Errico errenta, ondasun eta diruac?

– Peru Abarkaren agintaritzaz ez da nola-halako agintaritzaz. Gobernu onaren adierazle aipatzen ditu berak ardo/saltzailearen aurkako manuak, gizabanakoaren bizimodu zuzen eta okerrik gabekoa bermatzeko. Berandu arte izaten omen zituzten ardo-saltzaileek euren bezeroak ardandegietan. Peruk gogor debekatu du egote hori, forua eskuan duela. Hartara, Bizkaiko Foruaren testua:

Título Treinta y cinco, Ley XIII. Que los Taberneros no tengan nappes, ni dados, ni bolas, ni otro juego, ni consientan jugar, ni reciban para dormir en su Casa á ningun vecino de su Anteiglesia:...ni sea ossado acoger de noche en su Casa á ningun Vecino del mismo Pueblo, y Ante-Iglesia, só pena de dos mil maravedias por cada vez, que lo contrario hiciere, repartidos, la tercia parte para el Hospital, y Pobres de aquella Ante-Iglesia, do fuere la tal taberna, la otra tercia parte, para los reparos de los caminos de la mesma Ante-Iglesia, la otra tercia parte para el Juez y acusador, que acusaren y executaren a medias. (FNV, 101-102)

Ogeitamabosgarren Atala, XIII. Legea. Tabernariak ez dagiela kartarik, ez seikorik, ez bolarik, ez beste jokogaillurik euki, eta jokaterik bere ez dagiela onartu, eta bere elizateko auzokiderik ez dagiela lotarako artu...eta bere Erri edo Elizateko auzokiderik bere etxean gauzez artzen ez daitela ausartu, besterik egingen dauan baktotzeko bi milla marairen zigorpean, irutatik bat Taberna bera dagoan Elizateko Gaixoetxe ta ez-eukientzat, beste zatia Elizate bereko bideak konpontzeko, irugarrena salatariaren eta bete-eragipena egin dauan Epaikariaren artean erdibana egiteko. (BFB, 428-430)

– Demokraziarik erabatekoena dirudi horrek. Behera ditzadan, alabaina, horren nabarmenkeriak. Peru, jabetzaren aldetik, ez da jabeen morroi edo baserri-maizterra. Peruk hiru baserri dauzka (hortaz, maizterrak ere izango zituen), eta, bere buruari ez ezik, Maisu Juani ere aitortzen dizkio leinutasuna eta idalgia.

Besterik ez bada, hona 1526. urteko Foruak lainoki arautzen duena bere lehen tituluko XVI. legean:

Ley XVI. Como los Vizcaynos fuera de Vizcaya, han de gozar de su Hidalguía, y la Provanza, que para gozarla han de hacer. Otrosí, dixeron: Que todos los Naturales, Vecinos, é Moradores de este dicho Señorío de Vizcaya, Tierra-Lla-

na, Villas, Ciudad, Encartaciones, é Durangueses, eran Notorios Hijos-Dalgo, é gozaban de todos los Privilegios de Homes Hijos-Dalgo. (FNV, 12)

XVI Legea. Bizkaitarrek Bizkaï'tik at euren aundikitasuna euki egin bear dabela, eta orretarako ekarri bear dituen egiztabideak. Baitan, esan eben: Aitaturiko Bizkaï'ko Jaurerri guztian, Lurralde Lau, Uri, Uriaundi, Enkartalde ta Durangaldean, izatez bertokoak diralarik, bizi diran Bizkaitar eta bizilagun guztiak agiriko Aitonen Seme zirala eta Aitonen Semeei dagozkiezian Lege Berezi guztiak zituela. (BFB, 47)

4. Bizcaico porubac emoten deust escubidia

Aurrekoa zuzenbide publikoari dagokion ber, oraingoa zuzenbide pribatuaren haritik azalduko da.

Lehenengo autuan hiru etxaguntzaren jabe aitortzen du Peruk bere burua. Orain, ostera, etxe bakarra du ondare. Lehen aututik hirugarren autura eskastu den *Peru Abarkak* tinko azaltzen dio, baserrian jada, Maisu Juan kaletarrari baserria belaunaldiz belaunaldi oso-osorik eskualdatzeko lege-prozedura.

Gutxitan dira halakoak euskal letretan. Ezaguna da, sistema hori, ipi-apa eta ezaugarri antzekoekin, Euskal Herriko foru-lurraldeetan bizi izan dela mendeen mendeetan. Lekukotasunak, onerako zein txarrerako (horra Pierre Topet Etxahun), ugariak dira. *Peru Abarkarenak* bezain zehatzak, ordea, bakanak eta urriak:

Eztaucat eche bat baño. Bizcaico porubac emoten deust escubidia aututeco zuben artian gura dodana oinordecotzat. Guztiac bardin diriala, autuco dot semeen artian lénen jaijua. Zubec buru dongacuac bacinee, autuco neuque alaba nagusija. Ezta ondo gurasuac lotuta euquitia euren escubac. Seme nagusijac balequi, ta balezau gura ta ez izango dala ondasunen jabe, eguin lei otuten jaco-na; echecho caltitan dan ezcontzaren bat jaramon бага gurasuai, edo onei euren bai-etz noraezecua escatuta, negarrez largaten ditubala. Bildurric ezpaleuque galduco dabeela echaguntzia, buruco miñ ta atsacabe asco emon leijue gurasuai; baña oneec dauqueenian escubide ta auqueria emoteco gura dabenari seme-alaben artian, ecarri eraguingo deutsee lotsia, ta gordeco dira dongaro vici izateti. Beti da ondo berez semeren batec eruatia echia, arrotz ta beste iceneco bat jabetu бага. Baña guraso onac, bat ondo baño obeto ipintearren, eztau aztu bihar guztien gurasua dala. Aituco dozu onembestegaz cer esan gura dodan. (P Ab, 107-108)

Betoz orain Bizkaiko foruaren hitzak. Lege-hitzak, aspaldiko gaztelaniaz idatziak, gure belarrietan antzinakoen durundak ekartzen dizkigutenak. 20. tituluko XI. legeak honetara dio:

XI legea. Gurasoek etxaldea euren seme-alaba bati itxi daikeoela, besteak lur apur bat emonda baztarturik, eta legezko ez diran semeen ondorengotzari buruz. Baita, esan eben: Foruz, usuarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezar-

ten ebela, legezko Ezkontzako seme-alabak daukazan edozein Gizon edo Emakumek bere bizialdian edo eriotz-aldian legezko Semeren edo Alabaren bati edo illik dan Semeren edo Alabaren legezko ondorengo dan birlobaren bati bere ondasun mogikor eta lur-ondasun guztiak itxi daikeozala, beste seme-alaba ta ondorengoak, naiz-eta legezko Ezkontzatikoak izan, lur zati bana, txiki edo aundi, emonda baztarturik. (BFB, 232-234)

Ley XI. Cómo los Padres pueden dexar su hacienda á uno de sus hijos, apartando á los otros con alguna Tierra y de la succession de los Hijos, que no son legitimos. Otrósí, dixeron: Que havian de Fuero, uso, y costumbre, y establecian por Ley, que qualquier Hombre, ó Muger, que oviere Hijos de legitimo Matrimonio, pueda dar, assi en vida, como en el artículo de la muerte á uno de sus Hijos, ó Hijas legitimos, ó a nieto, y decendiente de su Hijo, ó Hija legitimo, que haya seydo fallecido, todos sus bienes, muebles, y rayzes, apartando con algun tanto de tierra, poco, ó mucho á los otros Hijos, ó Hijas, y decendientes, aunque sean de legitimo Matrimonio. (FNV, 56)

Bi testuon irakurketak gogorarazten diguna honetara laburtuko nuke nik:

– Ezin zalantzan jarri oinordeko bakarraren alde Moglek egiten duen defentsa sutsua. Hori da, eta ez besterik, baserria eskurik esku, familiaren barruan eusteko modurik egokiena. Defentsa, hala ere, ez da edozelakoa, ohar handikoa baino, hortxe baitaude, askoren ustez, euskal foruaren euskarri eta sostenguak. Aztertua izan da jada, ikuspegi frankoren aldetik, *Peru Abarkaren* moduko baserriar jabeen interesak nondik bideratu ziren XIX. mendearen hasieran, ilustrazioaren eta liberalismoaren artean.

– Moglek seme-lehentasuna aipatzen du. Semeen ondoren, alabak. Sexu-lehentasun hori, nolana ere, nabariagoa da beste euskal lurraldeetan, Bizkaian baino. Praktikak erakusten du halakoen baieztatzea, aspaldiko agirietan agertu den legez (LANGE, 1996:101):

Según el Fuero, las mujeres tenían derecho de heredar. El análisis de 150 contratos matrimoniales demuestra que los padres hicieron uso escasamente de esta posibilidad. En un 71,66% de los casos el marido era quien aportaba la vivienda, en el 24,3% la esposa y, por último, en el 4,1% ambas partes contribuían con un caserío. Consecuentemente, en la mayoría de los casos, era la mujer la que se trasladaba para casarse y no viceversa.

– Etxeak lotzen ditu familia eta abizena:

Eldu gara bada gabiltzan gabiltzan, ó adisquidia, neure echaguntzara ta jaquin eguizu derichola Landeta, landa eder baten dagualaco. Ezta guizon aldi daquinunian, eche onetara ezcondu mutil arrotz, edo beste echetacoric; belaunic belauin guizon eheco semeetati eldu da nigana; agaiti aldatu ezta niganaño neure icen ondocotzat eche onen icena; alan derist Peru Landeta-co. (P. Ab., 91)

Hemen ere, begien bistakoa da bestelako hori, hots, oinordeko bakarraren sistemak etxearekin duen lotura. Etxea da izenaren jatorria, eta etxe barruan sortzen da familia-erkidegoa edo fratria izendatzeko bide nagusia. Ho-

rrela ematen dute, berbarako, Bizkaiko ezaugarriek (LANGE 1996:100) nahiz Nafarroakoek (MORENO eta ZABALZA, 1999: 92).

– Mogelek ezkontza-kontratua jartzen du Peru Abarkaren esanetan. Hor-taz, ez du onesten seme edo alabaren oinordekotza bakarra, inolako aginpide-rik gabekoa. Agerian da hemen bi belaunaldi daudela jokoan: belaunaldi za-harra (aita/ama) eta gaztea (seme edo alaba ezkongai). Bi horiek batera bizi behar dute baserrian, *mahai eta erkidego* berean, usu erabili den formula biz-kaitarrari oratzearren. Ez zen, alabaina, formula hori edonorentzat egina, et-nografiaren iturriek erakusten digutenez (AEV, II, 1998: 440-441):

Otorgaban capitulaciones matrimoniales, ezkontzako kontratua, quienes eran propietarios o contaban con una cierta posición económica. Contentán do-naciones, dote, mandas, nombramiento de heredero, reserva y algunas previsio-nes consuetudinarias.

Hor sartzen da, bete-betean, gure Peru Abarka jauna, *inora* baino, biz-kaitarren hitzetan esateko, *etxera* ezkondu zela.

– Gurasoen agintea, beraz, egundoko bermea da, baserriaren ibilbide zu-zena ziurtatzeko. Horrela, bide egokitik desbideratuz gero, seme edo alaba dongaro horrek ez du ondare-igurikimen txikienik ere izango, egun batean ba-serria bere eskuetara etorriko denik.

– Latz eta gogorra izan daiteke, hainbatez, baserritik kanpora joan behar dutenen patua. Etxearen jabetza ziurtatua da, etxearen jabe berria jardunean baitago etxeko nagusiarekin batera. Eta besteak, zer? Besteen bazterketa non-dik bideratu? Mogelen esku luzeak ez ditu halakoak ahaztu, eta horientzat ere badu zer ekarri, horiek ere etxekoak dira eta.

Baserrian bertan biziko dira ezkondu arte. Ezkonduz gero, ezkonsaria era-mango dute andrazkoek. Gizonezkoek, bestalde, ofizio edo zereginetarako egokiera lortuko dute etxearen kontura.

Hitz batean esanda, horra foru-zuzenbidearen muina, goitik behera azal-dua: etxaguna eta etxea dira arau-antolakuntzaren ardatzak. Etxaguna da go-bernuan parte hartzen duena, agintari izateko aukera duena eta, jakina, idal-giarako gai dena; etxagun berberak du eskubidea, etxearen baitan, etxea oinordekoei eskualdatzeko, egokien iruditzen zaion moduan.

Horraino, Peru Abarkaren esan eta eginetan, irakatsi aberasgarriak. Nor-baitek pentsatua du, dagoeneko, esandako oro ez ote den bukolikoegia edo idi-likoegia, baserritar demokrazia orbangabearen izenean. Errealitateak bestela-koa ere badiosku. Horretarako helmuga zorrotza Peru Abarkaren karian dago, zuzenbidea eta literatura uztartu nahi izate horretan.

5. ... emongo dabela querellaren bat nire contra...

Eguneroko kexa da, gizakia bera bezain zaharra, nire azkena, justizia-administrazioarena. Maisu Juan da hizlari:

Badaquit cer esan gura deustazun: emongo dabela querellaren bat nire contra; etorrico jatazala escribau ta aguacilen batzuc, eguingo ditubela procesotzarrac, ta ezarrico costubac nire lepotira, ta menturaz sartuco nabeela preso. (P Ab, 79)

Ni nas justicijaco aguacila. Artu dot arrastuba, ta esan jacu onuntz etorri dala barberu ondo apaindu bat, pantaloeduna, ta moda modara jancija. ¿Nun da bera? Eracutsico jaco celan vici. (P Ab, 190)

Escribauba zain dago benta baten, emendi neroiana eruateco preso; maquina bat costu eguin dira; ez daquit noc pagauco dituban. (P. Ab., 191)

Hirugarren honek abagune ederra dauka *Peru Abarkarena* legearen iriztietan jartzeko. Jakina da, eta literatura guztietan aztertua, justiziaren alorra. Erliijoak sarri-sarri erabili izan du giza justiziaren prozesua Jainkoarena iruditatzeko. Besteak beste, hortxe dira Etxepareren bertsoak, azken judizioa dela eta.

Bestenaz ere, non-nahi dira ageriko aipamenak epaile edo jujeari buruz, horren menpekoak ere tartean direla. Herri-literaturak ez ditu leku onean jarri justiziaren langileak. Atsotitzak, errefrauk, antzerki irigarriak... Beti izan dira aparteko aukerak, justizia kritikatzeko eta justiziari erasotzeko. Ezin, hortaz, justiziak, guztion gogo eta asmoak ase eta bete.

Peru Abarkaren hariak, ulerbidez, bi lekutan egiten du topo justiziarekin. Biotan, gainera, beldurra da nagusi, hau da, prozesu aurreko lerrabideetan ibiltzekoa.

Horiek horrela, Mogelen aurreiritziak bistan daude, betiere Maisu Juanen ezpainetan:

Zain dagoz nor jausi aldedin cetan edo atan esesteco, paperac balcutiteco, eta andiquijac baño vicitza obia daruatzube inoren negarren costura. Aztuten dira erruquijaz, ta dauqueez biotz batzuc achac baño gogorruguac. Icusi ditut nos bait idijac corteetati atera, ta salduten euren paguraco, arrantza batian isten citubela idi-jaubiac. Nequezaliac eurac dauquee erru ez chicarra. Utsa gaiti, verba chachar batzuc gaiti, zor premiñaz atzeratuba gaiti, duaz querellac emotera; erraztuten deutsee vidia, esanaz, despachu bat aterata, lau egun barru urtengo dabeela gura dabeenaz. Lau egunac elduten dira lau illera; despachubac dacaz declaracinoiac, eta eguiten dabee proceso asco lizatiana amar bider lapurren aguiro edo probantzac eguiteco. Ni Jangoicuac gorde nau euren atzamarretati, merci ezpaneban bere. (P. Ab., 193)

Lehenengo aututik bosgarren autura, zernahi gisaz, hiru lagun ari dira: Maisu Juan, aguazila eta *Peru Abarka*.

Nondik-nahi begiratuta, azpimarragarri oso:

– Beldur dena, beti-beti, Maisu Juan da. Lehen autuko ostalariari iruzur egin omen zion. Horren ondoren, modu okerrean ihes egin zuen Maisu Juanek. Ostatu-kontratua, beraz, hautsia, ezelako begirunerik gabe. Zorra sortu da, eta Maisu Juan da horren erantzule. Ostalariak kereila jarri eta prozedura hasi beharko da. Dagoeneko hasi da, Foruaren 9. tituluaren II. legean datorrenaren arabera:

Pero en todos los otros casos, pueda el Juez cometer la Información, ó Probanza á qualquier Escrivano Natural de Vizcaya, de buena fama, que no sea pariente, ni cuñado del Acusador, dentro del tercero grado. (FNV, 30)

Beste kasu guztietan, barriz, Epaikariak izen onekoa dan eta irugarren mailaren barruan Salatariaren senide edo koñau ez dan edozein bizkaitar Eskribauren ardurapean itxi daikela argibide ta egiztagarriak jasotea. (BFB, 122)

Legearen testua da horretan arauzkoa. Garai bereko sermolariaren hitza, aldiz, arineketan doa prozesu horretan zehar entzuleei erakusteko, hiruzpalau fiabardura laburretan, haren ibilbide osoa. Hona Frai Bartolome de Santa Tesaren esanak, bere *Icasiquizunac* idaztean (1817, II: 167):

Juezac aucijaren erabaguia emoteco, jaquin bihar dau, noc daucan errazoa. Au jaquiteco, balijetan da testigubaquin. Areec, zer dinuen, jaquiteco, Esribauquin. Ta Areen esanac leguiagaz neurtuteco Letraubaquin. Aucilarijac artuten dau bere laguntzat norbait. Ta oni esaten jaco Procuradoria. Onec, aleguin guztiagaz beguiratuta, zaindu bihar dau bere partiaren errazoa Juezaren aurrian, Onei darraicuez, oidanez, auzi guztietan empeñubac, ta vitaartecuc alde bijetati, Ez, gueiljenian, errazoa aguertuteco, ta zuzenduteco. Ez bada, dan moduban dala, aucija irabazteco.

– Badaki Maisu Juanek zer datorkion: *kereila, prozesutzarrak eta kostubak*. Horren ondorioz beharbada, preso sartuko dute. Frogak eta lekukoak ere ez nolanahikoak, legeko eta abonauak baino, kereila aurkeztu duenaren alde lerra ez daitezen:

Titulo octavo, Ley II. En qué manera se puede proceder contra los Testigos falsos, y contra los sobornadores de ellos. Otrósi, allende de contra los dichos malfechores, el Juez pueda proceder de Oficio contra Testigos falsos, é sobornadores, é corrompedores de ellos, cuya falsedad estuviere averiguada por el Proceso, agora por confession, é variedad, é contrariedad del Testigo, agora en otra qualquier manera: con que no se haga nueva probanza para averiguar la falsedad, salvo por experiencia del Lugar, y evidencia, é vista ocular, é reproducimiento, y acareamiento de Testigos. Y que en este caso, no pueda entender, ni proceder el Juez contra el tal Testigo, salvo durante el Pleyto, en que depuso el tal Testigo, é no despues de sentenciado: Salvo si antes de la Sentencia comenzare á proceder contra el dicho falso Testigo: cá en tal caso despues de principiado el procedimiento, pueda proseguir y sentenciar en qualquier tiempo, assi antes de sentenciado en la causa principal, como despues. Pero que á pedimiento de la parte, contra quien depuso, se proceda contra el tal Testigo en todo tiem-

po. Y que el Testigo tal sea oydo en su Justicia, y pueda alegar, é probar su inocencia, y descargo en forma comun, y por qualquier via, y forma que pudiere. (FNV, 28).

8. titulua, II Legea. Guzurrezko lekukoak eta oneetarikoak azpitik erosten dituenen aurka auzibidez zelan jokatu daiteken. Baita: Aitaturiko gaizkillez gainera, guzurrezko Lekukoak eta azpikeriaz eta koipekeriaz erosten dituenen aurka Epaikariak Egintzaz jokatu daikela, Lekukoak berak autortu daualako zein aldatu egin dalako zein bere burua guzurtau egin daualako zein beste era batez auzibidean guzurra agertu baldin bada: guzurra ager daiten, baiña, beste azterkuntzarik ez daitela egin, lekuan ikusi izana ta agiri-agirikoa izatea ta norbere begiz ikusirikoa ta Lekukoak barririo ekarri ta alkar jotea baiño. Eta, olakoan, Epaikariak ezin daikela eskubiderik izan onelango Lekukoaren aurka auzibidez jokatzeko, Lekukoak berak autor egin eban auzian izan ezik, ez epaitua izanda gero, epaita emon aurretik onango Lekukoaren aurka ez baliardu: olakoan, bada, auzibidea asita gero, jarraitu daikela ta edozein unetan epaitu bere bai, auziaren arazo nagusia garbitu aurretik zein garbituta bero. Lekukoak aurka egin eutsan alderdiak eskatu ezker, barriz, edozein unetan Lekukoaren aurka ekin daitekela. Eta onelango Lekukoari bere buruaren alde entzun dakiola eta bere errugetasuna erakutsi ta egiztatu aal izan dagiala, bere burua zuriturik, oi dan eraz eta aal izango leuken beste edozein bidez eta eraz. (BFB, 116)

– Ikara bizian dago Maisu Juan, justizia-ofizialeen diru-gosea dela eta. Irudi berbera, diruarena, aguazilaren berbetan entzungo dugu, *Peru Abarkaren* seigarren autuan:

Escribaubari ta niri pagau biarco jacuz gueure aloguerac nundi edo andi; baiña atrapau baguendu barberu dontsuba, quenduco gueuntsan bizarra. (P Ab, 192)

– Peru Abarkari esker, Maisu Juanek alde egin dio justiziaren atzaparrari. Orduantxe bertan, burua askatzeaz batera, Mogelek Maisu Juanen hitzetan ematen du auzien aurkako adierazpena. Ohar bedi, orobat, Maisu Juanen aho-mihietan doazela horiek, eta bera dela auzitegiko hainbat hitz eta berbamolde tekniko mailegu gordinez erabiltzen dituen, inolako euskal garbizalekeriarik gabe. Ez dago hor Larramendiren itzala, zuzenbidearen hitz berezietan bederen (URRUTIA eta GALLASTEGUI, 2001).

– Antza denez, orduko giroaren adierazle bikainak dira azken bi horiek, sermolarien liburuetan agertzen denari jaramon eginez gero. Ugari ziren Bizkaian, itxuraz, auziak. Aurkako gogoia ere, guztiz zabaldu eta papereratua. Entzun ditzagun, berriro ere, Frai Bartolome de Santa Teresaren intzirriak (1817, II: 161):

Bai, gueure errijetan, vide bagaco, ta balijo andi bagaco milla auzi gorroto, ta castu andico egunero icusten dirian lecubetan. Ez daquit au cegaiti. Ala, gentia berez auzilaria dalaco: Ala, inoren auziagaz ondo vizi gura leuqueen, larregui dagozalaco. Izan leiteque bijac gaiti.

Gaiak, hortaz, ez du gaurkotasunik galdu, artean berrehun urte joan bada era ere.

6. *Nos artian guero bere, Catilina?*

Sona handiko galdera horixe, gure belarrietan sarritan entzun duguna. Mogelek euskaratu zuen, eta berak eman zigan erretorika klasikoaren eredua euskaraz, bizkaieraz zein gipuzkeraz. Bidea ireki zion, ezbairik gabe, euskarari halakoetan. Testu klasikoak dira horiek, latinez aipu zabalekoak eta Peru Abarkaren gehigarri etorri zirenak.

Gaurkoa, horratik, ahalegin xumea izan da, gizartean ondo erroturik dauden bi errealtate horiek, zuzenbidea eta literatura, barne-barnetik uztartzeko. Mogelek begien aurrean zuena islatu zuen, alegia, foru-sistema eta hizkuntza baten elkarbizitza. Badirudi, beraz, duela berrehun urteko egoeraren on-gaitzak bistarago izan ditzakegula bi horien bitartez, orduko osagaiak egoki eta artez ikertuz gero.

Betor, beraz, azken galdera, Zizeronen berberarena, euskararen inguruan diziplinarteko ikerketak jakiteko eta eskatzeko, elkarren aberasgarri eta osagarriak. Hortxe izan daiteke, neurri batean behinik behin, euskal kulturaren etorkizuna.

Noiz artean galdetu zuenari, horrenbestez, laster arte! erantzun behar, egin gogo nuena bete dudalakoan.

Mila esker.

7. Bibliografia oharrak

ARISTODEMOU, M.: *Law & Literature/Journeys from her to Eternity*, Oxford University Press, Oxford, 2000.

ATLAS ETNOGRÁFICO DE VASCONIA (AEV): *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*, Etniker Euskalerrria, Bilbao, 1998.

BIET, CH. (zuz.): *Droit et littérature, Littératures classiques* (40-automne 2000), Honoré Champion éditeur, Paris, 2000.

CARRANCA Y RIVAS, R.: *El derecho y la palabra (Ius semper loquitur)*, Editorial Porrúa, Mexico, 1988.

FREEMAN, M. eta LEWIS, A.: *Law and Literature*, Current Legal issues volume 3, Oxford University Press, Oxford, 1999.

FUERO NUEVO DE VIZCAYA (Sarrera: Celaya Ibarra, A.), Leopoldo Zugaza editor, Durango, 1976. Liburu honetara batzen da Delmas editoreak egin eban Foru Barriaren argitalpena, 1865. urtean. Aipamenak bertatik egin dira, *FNV (Fuero Nuevo de Vizcaya)* ikurpean.

- LANGE, J.: *Economía rural tradicional en un valle vasco. Sobre el desarrollo de estructuras mercantiles en Zeberio en el siglo XVIII*, Ediciones Beitia, Bilbo, 1996.
- MICHELENA, L.: El texto de *Peru Abarca* in *Sobre Historia de la lengua vasca. II*, Anejos del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo 10, Donostia/San Sebastián, 1988, 932-947.
- MOGUEL, J.A.: *El doctor Peru Abarca*, Imp. y lib. de Julián de Elizalde, Durango, 1881. Gerediaga elkarteak egindako faksimila, Durango, 1981. Testuaren barneko aipamenak argitalpen honetatik egiten dira.
- MORENO ALMÁRCEGUI, A. eta ZABALZA SEGUÍN, A.: *El origen histórico de un sistema de heredero único. El prepirineo navarro 1549-1739*, Instituto de Ciencias para la Familia, Universidad de Navarra, Ediciones Rialp, Madrid, 1996.
- OST, F., VAN EYNDE, L., GÉRARD, PH. ETA VAN DE KERCHOVE, M.: *Lettres eta lois lle droit au miroir de la littérature*, Publications des Facultés universitaires Saint-Louis, Bruxelles, 2001.
- POSNER, R.A.: *Droit et littérature*: Presses Universitaires de France, Paris, 1996.
- PUXANA Y AGIRREGABIRIA, P.: *Bizkai'ko Forua*, José de Estornes y Lasa argitarazlea, Bilbao, 1981. Bertatik jaso dira Bizkaiko Foru Berriaren berbak, euskarazko testuetan. *BFB (Bizkaiko Foru Berria)* ikurpean doaz horiek.
- SAN MARTIN, J.: *Mogel, bere bizitza eta obrak*, Itxaropena argitaldaria, Zaurutz, 1959.
- SANTA TERESA, FR. BARTOLOMÉ: *Jaungoicuaren amar Aguindubeetaco Azque-neco bosteen Icasiquizunac*, Rada Alargunaren liburuguillaan, Iruñea, 1817.
- URRUTIA, A. ETA GALLASTEGUI, C.: «Euskarazko lexikogintza juridiko-administratiboa. Larramendiren eragina», Euskaltzaindia-ren nazioarteko XV. Biltzarra, Bilbo, 2001, argitaratzeko lana.
- ZABALA, FR. MATEO DE: *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (II)*, Fr. Luis Villasantek paraturiko argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.
- ZELAIETA, A.: *Foruak eta euskal literatura*, Kriselu, Donostia, 1978.
- ZELAIETA, A.: *Peru Abarcaren berrirakurtzea*, Kriselu, Donostia, 1979.